



2003/01/22ko prentsa-oharra

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI)2002ko abendua

BIDAIARIEN SARRERAK %9 GEHITU DIRA 2002KO ABENDUAN

2002. urtean bidaiarien sarrerak %9 gehitu eta gualdiak %8 igo dira aurreko urtearen aldean.

2002ko abenduan, 97.366 bidaiari-sarrera erregistratu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 7.500 sarrera gehiago, hau da, %9 gehiago, Eustatek eskainitako datuen arabera. Bidaiari-sarrerak %15 gehitu dira Gipuzkoan, %7 Bizkaian eta ia berdin mantendu dira Araban.

2002ko abenduan, 172.920 gualdi erregistratu dira, aurreko urteko hil berean baino 8.000 gehiago izan dira, hau da, %5 gehitu dira ehuneko-baliotan. Egindako gualdien kopurua %13 gehitu da Gipuzkoan, %1 Bizkaian eta %2 jaitsi Araban.

Euskal AEko hoteletan ostatu hartu duten bidaiarien batez besteko egonaldia, aurreko urteko abenduko 1,84 egunetik aurtengo abenduko 1,78 egunera moztu da.

Nekazalturismoa: gehitu egin dira bidaiarien sarrerak (%12) eta gualdiak (%9).

Euskal AEko nekazalturismo-establezimenduetan, 5.082 bidaiari-sarrera izan dira 2002ko abenduan, aurreko urtean baino %12 gehiago: %25 gehitu dira Araban, %16 Gipuzkoan, eta %3 Bizkaian.

Egindako gualdiak 12.592 izan dira, hau da, 2001eko abenduan baino %9 gehiago, eta horrek Araban (%18) eta Gipuzkoan (%14) eragin du; Bizkaian mantendu egin baita.

Batez besteko egonaldia %3 laburtu da Euskal AE osoan eta hiru herrialdeetan izan du eragina.

2002KO DATUEN BALANTZEA: EMAITZA POSITIBOAK HOTELETAN ETA NEKAZALTURISMOETAN.

2002. urtean, 1.512.081 bidaiari-sarrera erregistratu dira **Euskal AEko hotel-establezimenduetan**, aurreko urtean baino 125.000 sarrera gehiago eta horrek **urteko hazkundera %9ra** ekarri du. Hazkunde bera izan da estatuko eta atzerriko bidaiarientzat. **Bidaiari-sarreraren urteko hazkundera %10ekoa da Gipuzkoan eta Bizkaian eta %4koa Araban.**

1.taula: Urteko emaitzak

	HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK			NEKAZALTURISMOA		
	2001	2002	Δ %	2001	2002	Δ %
Bidaiari-sarrerak	1.386.928	1.512.081	9	67.011	78.301	17
Gaualdiak	2.636.110	2.847.751	8	175.719	203.951	16

Iturria: EUSTAT

Hotel-establezimenduetan erregistratutako gaualdiak 2.847.751 izan ziren 2002. urtean, hau da, aurreko urtean baino 211.000 gehiago. Horrek **urteko %8ko hazkundera** ekarri du, **%12koa Bizkaian eta %9koa Gipuzkoan; Araban, aldiz, %2 jaitsi da.**

Euskal AEko hoteletan ostatu hartu duten bidaiarien batez besteko egonaldia, berriz, apur bat laburtu da (%-1) 2002. urtean, baina **betetze-maila %3** hazi da 2001. urtearekiko.

Euskal AEko **nekazalturismo-establezimenduetan**, 78.301 bidaiari-sarrera izan dira, aurreko urtean baino %17 gehiago.

Egindako gaualdiei dagokionean, %16ko hazkundera metatu da **nekazalturismo-establezimenduetan** Euskal AEko hiru herrialdeetan, 28.000 gehiago izan baitira balio absolutuetan.

2002an **nekazalturismo-establezimenduetan** izandako betetze-maila %7 igo da aurreko urtearekiko.

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01
---	---

	Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
--	---

2. taula: hileko emaitzak

EUSKAL AE						ARABA						BIZKAIA						GIPUZKOA					
2002/12	%	2001/12	%	D%		2002/12	%	2001/12	%	D%		2002/12	%	2001/12	%	D%		2002/12	%	2001/12	%	D%	

HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK

BIDAIARI-SARRERAK	97.366	100	89.701	100	9	18.922	100	18.885	100	0	40.507	100	37.932	100	7	37.937	100	32.884	100	15
Estatukoak	77.461	80	71.073	79	9	16.479	87	15.746	83	5	32.090	79	29.180	77	10	28.892	76	26.147	80	10
Atzerrikoak	19.905	20	18.628	21	7	2.443	13	3.139	17	-22	8.417	21	8.752	23	-4	9.045	24	6.737	20	34
GAUALDIAK	172.920	100	164.716	100	5	32.425	100	32.920	100	-2	72.696	100	71.635	100	1	67.799	100	60.161	100	13
Estatukoak	135.950	79	125.975	76	8	28.366	87	27.690	84	2	54.507	75	51.160	71	7	53.077	78	47.125	78	13
Atzerrikoak	36.970	21	38.741	24	-5	4.059	13	5.230	16	-22	18.189	25	20.475	29	-11	14.722	22	13.036	22	13
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,78		1,84		-3	1,71		1,74		-2	1,79		1,89		-5	1,79		1,83		-2
PLAZAKO BETETZE MAILA	33,64		33,80		0	33,96		40,64		-16	34,58		35,24		-2	32,53		29,63		10

NEKAZALTURISMOA

BIDAIARI-SARRERAK	5.082	100	4.536	100	12	827	100	660	100	25	1.941	100	1.888	100	3	2.314	100	1.988	100	16
Estatukoak	4.851	95	4.402	97	10	827	100	606	92	36	1.883	97	1.823	97	3	2.141	93	1.973	99	9
Atzerrikoak	231	5	134	3	72	0	0	54	8	-100	58	3	65	3	-11	173	7	15	1	1053
GAUALDIAK	12.592	100	11.562	100	9	2.032	100	1.723	100	18	4.824	100	4.818	100	0	5.736	100	5.021	100	14
Estatukoak	11.318	90	11.040	95	3	2.032	100	1.560	91	30	4.288	89	4.562	95	-6	4.998	87	4.918	98	2
Atzerrikoak	1.274	10	522	5	144	0	0	163	9	-100	536	11	256	5	109	738	13	103	2	617
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,48		2,55		-3	2,46		2,61		-6	2,49		2,55		-2	2,48		2,53		-2
PLAZAKO BETETZE MAILA	19,30		19,68		-2	15,61		14,59		7	23,33		25,65		-9	18,18		17,84		2

Iturria: EUSTAT